

## **FUNTSEZKO ELKARTEAK**

Gure proiektuak funtziona dezan, hainbat bazkide eta hornitzaile nagusi beharko ditugu. Gure enpresak 2 funtsezko elkarte mota edukiko ditu. Alde batetik ordenagailuak eta kargadoreak egiten dituzten enpresak (hp, acer, asus, mac...). Hauek gure sistema operatibo eta teknikoa sortzen lagunduko digute, behar ditugun osagaiak saltzeaz gain ordenagailuak eta mahaiak konpatibleak izan daitezen elkarlanean jardungo dugu.

Beste alde batetik, ez dugu ahaztu behar mahaiak egiteko egurra ere beharko dugula. Arestian esan bezala, gure enpresak ez du nolana materiala erabili nahi mahaiak ekoizteko eta kalitatezko egur birziklatua lortzen lagunduko digun norbait behar dugu. Ondorioz, RETRAMA enpresa aukeratu dugu gure egur hornitzaile bezala egur birziklatua ekoizten duelako, izan ere, gure mahaiak kalitate oneko egur birziklatuarekin egin nahi ditugu natura zaintzeko.